



4.13. Aholkularitza-zerbitzuak

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barruan

Fitxa honetan, aholkularitza-zerbitzutzat jotzen dira erakundeek kontratatzen dituzten laguntza teknikorako eta aholkularitzarako kontratu eta hitzarmen guztiak, hala nola plan estrategikoak lantzea, azterlanak egitea, Tokiko Agenda 21 eta antzeko programak gauzatzeko laguntza ematea eta abar.

Kontratu batzuek ezaugarri bereziak dituztenez, eta ezaugarri horiek ez direnez edozein aholkularitza-zerbitzuri oro har dagozkien ezaugarrietan sartzen, kapitulu honetan aipatuko ditugu kontraturik gehienetan erabil daitezkeen ingurumen-irizpideak, ezaugarri bereizgarrietan sartu gabe.

1.2. Non gaude

Aholkularitza-zerbitzuek sortzen dituzten ingurumen-eraginek administrazioarentzat garrantzi berezirik ez duten arren, berez, halako kontratuetan ingurumen-irizpideak sartzeak eragin oso positiboa ekar dezake, hainbat arrazoiengatik:

- Alde batetik, erakundeek hitzartzen dituzten aholkularitza-kontratuen kopurua oso handia da eta, beraz, denak batera kontuan hartzen baditugu, guztietan lortutako ingurumen-hobekuntza garrantzitsua izan daiteke.
- Bestetik —eta are garrantzitsuagoa— enpresa asko direnez zerbitzu horiek ematen dituztenak, kontratazio publiko berdearen bidez lortutako sentsibilizazioa eta ingurumen-hobekuntzak, aipatutako enpresen gainerako bezeroengana (publiko zein pribatua) ere iritsiko dira eta, ondorioz, baita enpresa horien hornitzaileengana ere, efektu biderkatzailea eraginez.
- Azkenik, profesional horiek ingurumenarekiko sentikortzeak aldagai hori enpresa horien jardunean sartzen diren beste hainbat lan-eremutara hedatu dezake, aurrez aztertu eta landu gabeko ildo berriak zabalduz ingurumen-ekintzan.



1.3. Nola jokatu

Aholkularitza-zerbitzuei lotutako ingurumen-eragina txikiagotzeko, helburu hauetarako neurriak zehaztu behar dira:

- Kanpo-zerbitzu horien kontratazioa arrazionalizatzeko.
- Kontratua betearazi bitartean enpresen bulego-lanek sortutako eraginak minimizatzeko (batez ere energiari, hondakinei eta urari dagokienez).
- Kontratua dela medio sortutako dokumentuen (azterlanak, memoriak, planoak eta abar; paperean, normalean) ingurumen-kalitatea bermatzeko, ahal dela materiala euskarri fisikoan ez sortuz.
- Kontratuak eragindako desplazamenduak gutxitzeko eta, saihestu ezin direnean, sortzen dituzten eragin negatiboak minimizatzeko.
- Kontratu-atalak azpikontratatzean —esaterako, inprimategiak, laborategiak, areto edo barrutiak eta abar— sortzen diren ingurumen-eraginak gutxitzeko.



2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola ezagutu egiazko beharrianak eta nola gutxitu kontsumoa

Aholkularitza-kontratuetakoko kontsumoa (papera, elektrizitatea, erregaia eta abar) nola gutxitu jada jorratu dugu eta, fitxaren beste atal batzuetan ere landuko dugun arren, hona hemen galdera: aholkularitza-kontratuen kopurua gutxitzerik badago?

Alde batetik, joera orokor bat badago, lanak kanpora bidaltzekoa, baina, batzuetan, lan horiek *barruan ere egin daitezke*, erakundeak eskura dituen baliabideak ondo ezagutuz gero edo gutxieneko prestakuntza osagarria eskainiz gero. Horrela, funtzionarioei lan atsegingarriagoak egiteko aukera ere eskain dakieke; izan ere, sarritan (adibidez, arkitektura- edo hirigintza-arloetan), beren burua proiektu-administratzaile edo -kudeatzaile soil gisa ikustera irits daitezke funtzionarioak.

Teknologia berriei esker, gero eta jende gehiagok eskura dezake informazio ugari. Hortaz, gaur egun zailtasunak ez datoz eskura dagoen ezagutza faltagatik, baizik eta helburu jakin bat lortzeko informazio egiazko, benetan erabilgarri eta zehatza aukeratu beharretik baizik. Horregatik, zenbait kasutan egokiagoa izan daiteke, hasieran, gai horri buruz *jada badagoen informazioa, materialak eta azterlanak biltzeko lana* baino ez kontratatzea eta, horrela, ondoren aztertea azterketa edo lan jakinik egin behar den. Izan ere, baliteke bildutako informazio hori nahikoa izatea behar den material eta-edo ondorioak administrazioak berak sortzeko. Adibidez, erosketa berde aurrekomertzialaren egoera eta erosketa berde hori bultzatzen tresnak ezagutu nahi badira, enpresa bat kontrata daiteke azterlan hori egiteko edo, bestela, enpresa hori kontratatatu daiteke gai horri buruzko informazio guztia biltzeko eta administrazioari emateko, inolako dokumenturik sortu gabe. Horrela, enpresa horrek aurkitutako informazioarekin administrazioak berak egin dezake dagokion laburpen a, eta/edo ondorioak atera.

Beste alde batetik, aholkularitza-ingurune batzuetan, beste erakunde batzuek jada kontratatutako lanak egitearren ordaintzen du administrazioak eta, ondorioz, diru publikoen erabilera kaxkarra egiten da. Halakoetan, hobe da harreman-sare ona izatea *jada egindako* eduki bereko *materiala* eskatzeko edo material hori dagokion kasu jakinera egokitzeko. Beste erakunde batzuekiko elkarlanak aukera eman dezake denontzako interesgarriak diren produktuak elkarrekin garatzeko.

46. KASUA: Ihobe

Ihobek, Ingurumen-Kudeaketarako Erakunde Publikoak, hainbat enpresa kontratatzen ditu administrazio publikoan zein industria- eta enpresa-sektoreetan ingurumen-hobekuntza sustatzeko azterlanak, eskuliburuak eta bestelako dokumentuak egiteko.

EAEn eta kanpoko beste hainbat erakundek ere arlo horretan lan egiten dutela jakitun eta sortzen ari diren lanak ezagututa, Ihobek sarritan erabaki du beste erakunde batzuek ondo egindako lana aprobetxatzea EAEn hedatzeko eta lan hori sortzearen berriz ez ordaintzeko, diru publikoak xahutu gabe.

Horren adibide dira, esaterako, Erresuma Batuko gobernuarentzat egindako *Bulego Berdearen Gida Praktikoa*, edo Bartzelonako Udalarentzat egindako «Ingurumen-hezkuntzarako gida: jai jasangarriagoak». Ihobek lan horiek ezagutzen zituen, eta horien kalitatea aintzat hartuta, egokiago ikusi zuen erakunde horiei baimena eskatzea gida horiek itzuli, euskal testuingurura egokitu eta EAEn argitaratzeko (aipatutako erakundeei dagokien aitortzarekin), lan horiek egitea berriz kontratatzea baino.



Kontsumoa gutxitzeko beste bide bat *kontratuen arteko sinergiak* aprobetxatzea da eta, lanak bikoiztu beharrean, elkarren emaitzak edo zerbitzuak atzeraelikatzea. Hori egiteak zerbitzuen garapenean malgutasun handiagoa eskatzen du, eta horrek zaildu egin dezake proiektuen kudeaketa; aitzitik administrazioaren mezuek koherentzia handiagoa izatea bermatzen du.

Azkenik, *argi ezagutu behar da aholkularitza-zerbitzu baten bidez zer-nolako beharrianak bete nahi diren* eta zer bilatzen den benetan; horrela, zerbitzuak hobeto egokitu daitezke egiazko beharrianetara eta ahaleginak lehentasun txikiagoko gai edo esparruetara desbideratzea saihesten da.

2.2. Zer eta nola erosi

Bolumen ekonomikoa dela eta, negoziazio-prozeduraz kontratatu ohi dira aholkularitza-kontratuak, baita —gutxiago— zuzeneko kontratazio bidez ere. Oso gutxitan —lanaren tamaina handia bada, bakarrik— erabili behar izaten da prozedura irekia. Zerbitzuaren ezaugarriak direla eta, enpresa-aukeraketa egiteran, enpresa horiek gai horretaz duten eskarmentua eta ezagutza hartzen dira kontuan, batez ere.

Normalean, ez da inolako ingurumen-irizpiderik zehazten kontratua egitean, eta ingurumenari garrantzi oso txikia —hutsaeren parekoa, ia— ematen zaio¹. Enpresak aukeratzean, oso kasu bakan batzuetan hartu da aintzat ingurumen-kudeaketarako sistemarik baduten edo ez. Kontratazio publikorako arau-esparru berrian, administrazioak ez luke esleipen-irizpide gisa erabili behar enpresek halako sistemarik duten edo ez. Hala ere, badago irizpide hori erabiltzerik negoziatutako prozedura edo prozedura txikiei dagozkien aukeraketa-irizpideetan.

Bestalde, kontratua aurrera eramateko irizpideak ere zehaztu daitezke, eta bermatu egin behar da irizpide horiek, esleitutako enpresak ez ezik, enpresa horrek zenbait lan egiteko azpikontratatzen dituen gainerakoek ere betetzen dituztela.

Beste kontratu batzuekiko elkarreragina aurreikusten bada, kontratazio-eskaintzan zehaztu egin behar da erlazio horren irismena eta nola eragin diezaiokeen kontratu horren gauzatzeari. Zereginak garbi zehaztu behar dira, plangintza eta emaitzak ahalik eta zehatzenak izan daitezzen.

2.3. Nola kudeatu zaharkitutako produktuak eta hondakinak

Aholkularitza-zerbitzuetan sortzen diren hondakin nagusiak zerbitzu horretarako sortutako material eta dokumentu guztiak dira. Hortaz, kudeaketak bermatu egin behar du hondakin horien gaikako bilketa, ondoren birzikla daitezen. Horrek beste elementu batzuei ere eragiten die, hala nola azken produktuarekin eman daitezkeen CD, DVD edo memoria-giltzei. Halakoak, hondakin bereziak izanik, gaika bildu behar dira eta dagokien kudeatzaile baimenduei helarazi behar zaizkie.

CD eta DVDei dagokienez, hondakin horien kudeaketa CEDERIKaren —halako produktuak gaika biltzeko euskal ekimenaren— bidez egin daiteke (informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Bulego Materialen fitxa). Dena den, produktu horiek birgrabagarriak badira, berriz erabil daitezke (ikus aurrerago). Horrela, hondakin gutxiago sortzen da.

¹ Kapitulu honetan aztergai diren aholkularitza-kontratuak orokorrak dira, aholkularitza horren izaera edo gaia edozein izanik ere; beraz, aholkularitza hori ingurumenari buruzkoa izan arren, baliteke ingurumen-irizpiderik gabe garatu izana.

3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

3.1. Enpresetako bulegoetan duen eragina

Aholkularitza-enpresen lanik gehiena haien bulegoetan egiten da. Bulegoetako ingurumen-eragin nagusien sortzaileak, oro har, hauek dira:

- Energia-kontsumoa, batez ere argiztapena, berokuntza eta klimatizazioa eta tresnen funtzionamendua (ordenagailuak, inprimagailuak, faxak eta abar).
- Hondakin-sorrera, bai hiri-hondakin gisa trata daitezkeenak (papera, plastikoa, beira eta gainerakoak), bai hondakin bereziak (tonerrak, zaharkitutako tresneria elektronikoa, CDak eta abar).
- Komunetan eta sukaldeetan kontsumitzen den ura.

Argitalpen-kontratueta zerbitzuak aurrera eramateko produktu, tresneria eta erabili beharreko prozedurei ingurumen-irizpideak defini daitezkeen modu berean defini daitezke aholkularitza-zerbitzuetan ere. Halako zehaztapenek ondo finkatuko dute ordenagailuak, ibilgailuak eta gainerako material eta prozedurak ingurumena ahalik eta gehiena errespetatuz erabiltzen dituela enpresak.

3.2. Materialen eta dokumentuen eskualdatzea

Aholkularitza-kontratuak egitean, normala da dokumentuak sortzea, dela bileretan eta proiektuaren tarteko faseetan erabiltzeko, dela lanaren azken emaitzak jasotzeko. Material horiek —normalean, ugariak— inprimatu egin ohi dira eta ingurumen-eragin kaltegarriak sortzen dituzte, bai behar den papera fabrikatzean bai paperetan inprimatzean ere. Batzuetan, dokumentu informatiko horiek oso astunak badira, CDetan grabatu eta posta arruntez edo mezularitza bidez bidaltzen dira. Horrela eginez gero, garraioari dagozkion ingurumen-eragin kaltegarriak sortzen dira.

Ingurumenari eragiten zaizkion kalte horiek txikiagotzeko, materialak euskarri fisikoan ahalik eta gutxiena sortzeko neurriak hartu behar dira (ahalik eta paperezko dokumentu gutxiena ematea bileretan eta, horren orde, dokumentuak denok batera pantailan ikustea, edo, bestela, dokumentu oso astunak trukatu behar badira, zerbitzariaren bidez trukatzeko, dokumentuak igo eta jaitsez CDetan grabatu eta postaz bidali beharrean).

Euskarri fisikoa erabiltzea ezinbestekoa bada, ahal dela dokumentuak alde bietatik inprimatu, zuri-beltzez, hainbat dokumentu-orri sartuz paper-orri bakoitzean eta klororik gabeko zuntz birziklatuz egindako papera erabiliz. Halako paperik erabili ezin bada —adibidez, kloro gabeko paper birziklatu ez delako aurkitzen—, modu jasangarrian kudeatutako baso edo sailetatik datorren egur-zuntzez egindako eta fabrikazio-prozesuan bestelako ingurumen-hobekuntzak erabiliz egindako papera eskatu behar da. CDak erabiltzekotan, saiatu birgrabagarriak edo irekiak erabiltzen, berriz ere erabilgarri egon daitezkeen.

3.3. Bidaiak eta desplazamenduak

Aholkularitza-zerbitzuetan ohiko jarduerak ditugu bilera, bisita, trebakuntza-ikastaro eta antzekoetara egiten diren bidaiak eta desplazamenduak.



Desplazamenduen eragin nagusiak eguratsera igortzen den CO₂-a eta gainerako gas poluitzaileak dira. Hortaz, desplazamendu-kopurua gutxitzeko neurriak hartzeko ahalegina egin behar da (bideo eta telekonferentzia bidezko bilerak egin, bilerak ondoz ondoko egunetan egin, eta abar), bai eta ekidin ezin daitezkeen bidaien ingurumen-eragina txikiagotzeko ere (oinez edo bizikletaz joan, garraio publikoak erabili edo, besterik ezean, partekatutako eta emisio eskaseko autoetan joan).

Era berean, zerbitzu horien eraginaz jabetzeko, eragiten duten desplazamendu eta emisioen segimendua egitea gomendatzen da. Emaitzen arabera, administrazioak edo enpresak, egingdako emisio guztiak edo zati bat konpentsa ditzake, merkatuko konpentsazio-tresnen bidez.

47. KASUA: Ihobe

Ihoberen erosketa berderako laguntza tekniko emateko hitzartutako aholkularitza-kontratuaren barruan, Ecoinstitut Barcelona eta Prometea enpresek osatutako taldeak haien eskaintzari hainbat ingurumen-hobekuntza sartu zizkion zerbitzua ematean ingurumen-eragina txikiagotzeko. Hobekuntza horien artean ditugu bideokonferentziak egitea desplazamenduak gutxiagotzeko, garraio publikoa erabiltzea bilera gehienetara joateko eta Ecoinstitut Barcelonako desplazamenduek eragindako igorpenak konpentsatzea (distantziagatik, sarri hegaldiak egin beharra zegoelako).

Zerbitzuari lotutako ingurumen-eraginak txikiagotzeko hartutako bestelako neurriak 34. jardunbide egokian dituzue.

3.4. Beste enpresa batzuen azpikontratazioa

Zenbait kasutan, aholkularitza-kontratuetan, esleipendun enpresa arduratzen da hirugarren enpresa batzuen zerbitzua kontratatzeaz hainbat eratako zenbait lan egiteko (hala nola, argitalpenak, ekitaldiak, neurketak, saiakuntzak, analisiak eta abar).

Aipatutako lan horiek ingurumen-eragin handia sor dezakete; hortaz, bermatu egin behar da aholkularitza-enpresak kontratazio berdeko irizpideak erabiliko dituela hirugarren enpresa horiek aukeratzeko prozesuan.

4. Ingurumen ziurtagiriak

Zerbitzu-kontratuak izanik, aholkularitza-kontratuei dagozkien ingurumen-ziurtagiri nagusiak enpresaren ingurumen-kudeaketari lotutako ziurtagiriak dira. Enpresak ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzeko eta enpresen eguneroko funtzionamenduak ingurumenean eragindako kalteak txikiagotzeko erabiltzen diren tresna normalizatuak dira ingurumena kudeatzeko sistemak (IKS).

Sektore batzuetan, hala nola arkitekturan edo diseinuan, enpresa batzuek UNE 150301 ekodiseinu-arauari dagokion ziurtagiria ere erabiltzen dute. Horrek esan nahi du enpresa batek ekodiseinu-irizpideak erabiltzen dituela bere produktu berri guztietan, nahiz eta ez duen ezer ziurtatzen enpresaren barne-kudeaketari buruz.

Hauek dira ziurtagiri nagusiak:



ISO 14001 eta UNE 150301 (Ekodiseinua) arauari dagokienez, sistemaren logotipo estandarrik ez dagoenez, ziurtagiriak ematen dituen enpresa jakin baten ikurra adierazi da —kasu honetan, AENOR-ena—.

Ingurumen-irizpideak definitu eta aholkularitzaren esparruan irizpide horiek betetzen direla bermatzeko erabilgarriak izan daitezkeen beste zenbait ziurtagiri jasotzen dira EKPB (Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea) eskuliburuaren kapitulu jakin batzuetan, hala nola Paperari, Ekipo Informatikoei eta Ibilgailuei buruzko ataletan.



5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Aholkularitzaren esparruan, asko aldatzen da lan-sektore batetik bestera IKSa duten enpresen eskaintza. Ingurumen-aholkularitzan, hainbat enpresak dituzte IKS ziurtagiriak edo ingurumen-jokabidea hobetzeko prozedurak eta jardunbideak. Diseinu eta arkitekturaren alorrean, pixkanaka hasi dira enpresa batzuk Ekodiseinurako UNE 250301 aruari jarraituz ziurtagiriak eskuratzen. Gainerako sektoreetan, alde dezentekoa dago batzuetatik besteetara IKSa duten enpresen kopuruari dagokionez. Ihoberen web-orrian (www.ihobe.net) duzue ingurumena kudeatzeko sistemei jarraituz ziurtatutako EAEko enpresen zerrenda bat. Hortaz, oro har hitz egin da, ez da zaila aholkularitzaren sektorean etengabeko hobekuntzako jardunbideak ezartzen dituzten enpresak aurkitzea.

Aholkularitza-zerbitzuak egitean kontratatu edo erabil daitezkeen produktu eta zerbitzuen eskaintza aztertzen badugu, zabala dela ikusten da (informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EKPB eskuliburuaren gainerako kapituluak).



6. Ingurumen irizpideak

6.1. Prozedura irekiz kontratatzeko irizpideak

Kontratazio-mota horretarako proposatzen diren irizpideak IHOBEn web-orrian dituzue (www.ihobe.net). Kontratazio-mota horretarako bi eskakizun-maila proposatzen dira: oinarritzko maila eta aurreratua.

Ingurumen-irizpideez gainera (eskakizun teknikoak), esleipen-irizpideen eta eskaintza teknikoaren edukiaren gaineko proposamen bat ere aurki daiteke bertan. Azken atal horretan dago zehaztuta eskaintzaileek informazioa nola aurkeztu behar duten eskatutako informazioa errazago biltzeko.

6.2. Negoziatutako prozedurarentzako irizpideak

Prozedura negoziatua bada, prozedura irekirako erabilitako irizpide berberak erabiltzea proposatzen da.

Dena den, kontratazio-prozesura gonbidatuko diren aholkularitza-enpresen aukeraketa egiteko (gaiaren inguruko eskarmentua aztertu ondoren) kontuan hartu behar da ingurumenarekiko duten konpromisoa. Ezagutzen ez bada, eta beharrezkoa bada, konpromiso hori beti egiazta daiteke ingurumena edo ekodiseinua kudeatzeko sistema baten bidez.

6.3. Zuzeneko kontrataziorako irizpideak

Negoziatutako prozeduran erabilitako prozesu bera erabiltzea proposatzen da.